



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2017KO AZAROAREN 17AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia

Etorri diren zinegotziak:
Jon Mikel Iglesias Otegui
Jesus Peñagarikano Labaka
Maria Cristina Goya Amiama
Eleuterio Sanchez Garcia

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2017ko azaroaren 17an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkatea izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

1.2017KO URRIAREN 27KO AKTAREN ONARPENA

2017ko urriaren 27an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2017ko urriaren 27an eginiko Gobernu Batzarraren akta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA:

2.-2017KO AZAROAREN 13AN BURUTURIKO INGURUMEN, MERKATARITZA ETA NEKAZARITZA BATZORDEAREN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK

2.1 HONDAKINAK. KONTENEDORE MARROIA + GRISA. AURREKONTUA

2017ko irailaren 27an, 00.30ak aldera, Euskal Herria 37 kaleko hiru kontenedore erre ziren (urdina, horia eta grisa) oraindik ezagutzen ez den arrazoiren batengatik.

Kontenedore urdina eta horia Tolosaldeko Mankomunitatearenak ziren eta kontenedore grisa Ibarako Udalarena.

Tolosaldeko Mankomunitateak berehala ordezkatu zituen hiru kontenedoreak, hiruak irekiak direlarik, itxitura sistematik gabekoak.

Kontenedore grisa behin-behineko aldirako jarri zuen Tolosaldeko Mankomunitateak, Ibarako Udalak sarbide kontroladun edukiontzi gris bat erosi bitartean.

Kontuan hartuta Ibarako Udalari komeni zaiola edukiontziren bat stokkean izatea.

Kontuan hartuta ingurumen, merkataritza eta nekazaritza teknikariak aurrekontua eskatu diola Plastic Omniumeri sarbide kontroladun bi kontenedore erosteko, bat organikoarentzat (marroia) eta bestea errefusarentzat (grisa).

Kontuan hartuta Plastic Omniumek 2.733,51 euroko zenbatekoa, BEZ barne, aurkeztu duela sarbide kontroladun bi kontenedoreengatik.

Kontuan hartuta Ibarako Udalak zenbateko hori 2017ko Aurrekontu Orokorraren bitartez finantziatu dezakeela, 1.0000.623.162.10.02 2017 partidaren bitartez.

2017ko azaroaren 13ko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Sarbide kontroladun bi kontenedore (marroia eta grisa) erostea eta Plastic



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Omniumen aurrekontua onartzea guztira 2.733,51 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne.

BIGARRENA: Kontuhartzaitzak zenbateko hori 1.0000.623.162.10.02 2017 partidaren bitartez ordaintzea faktura iristen direnean.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri eman Kontuhartzaitza sailari

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Plastic Omniumeri ematea (E+G).

2.2 HONDAKINAK. EDUKIONTZIEN ORDEZKO PIEZAK

Ibarrako Udalak 2017ko maiatzean abian jarritako hiri-hondakinen bilketa sistema berria kontenedore bidez egiten da, organikoaren eta errefusaren edukiontzia itxiturarekin izanik.

Itxitura sistemak pilekin funtzionatzen du, pila hauen iraupena gutxi gorabehera bi hilabetekoa izanik.

Kontuan hartuta aipaturiko bilketa sistema berria jarri zenetik dagoeneko bi kontenedoretan desagertu direla bertako sarraila elektronikoak.

Kontuan hartuta sarraila elektroniko horiek Talleres AGA S.A. enpresak egiten dituela.

Kontuan hartuta ingurumen, merkataritza eta nekazaritza teknikariak aurrekontua eskatu diola Talleres AGA, S.A.ri, bi sarraila elektroniko erosteko.

Kontuan hartuta Talleres AGA, S.A.k 249,33 euroko zenbatekoa, BEZ barne, aurkeztu duela bi sarraila eletronikoengatik.

Kontuan hartuta Ibarrako Udalak zenbateko hori 2017ko Aurrekontu Orokorraren bitartez finantziatu dezakeela, 1.0000.623.162.10.02 2017 partidaren bidez.

2017ko azaroaren 13ko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Bi sarraila elektroniko erostea eta Talleres AGA, S.A.ren aurrekontua onartzea guztira 249,33 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA: Kontuhartzaitzak zenbateko hori 1.0000.623.162.10.02 2017 partidaren bitartez ordaintzea faktura iristen direnean.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri kontuhartzaitzari ematea

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Talleres AGA, S.A.ri ematea (E).

2.3 ORIETAPEA-IZASKUN MENDI IBILBIDEA. SEINALEZTAPENA

Argindegia auzotik abiatuta, Elorbe baserritik pasatuz, Izaskunera doan mendi bidea ezagutara emateko helburuarekin, igoeran bost seinale jartzea proposatzen da ingurumen, merkataritza eta nekazaritza departamentutik.

Halaber, Ibarra Udalak Emeterio Arrese 8 atzealdeko bidetxurra berreskuratzeko asmoa duenez, berau seinaleztatzeke proposamena ere egiten du ingurumen, merkataritza eta nekazaritza departamentuak, bertan lau seinale proposatuz.

Kontuan hartuta, beraz, ingurumen, merkataritza eta nekazaritza teknikariak Protec enpresari eskatu diola 90x195x1000 mm neurriko 9 seinaleen aurrekontua.

Kontuan hartuta Protec enpresak 526,35 euroko aurrekontua, BEZ barne, aurkeztu duela aipaturiko 9 seinale horiengatik.

Kontuan hartuta Ibarra Udalak zenbateko hori 2017ko Aurrekontu Orokorretik finantziatu dezakeela 1.0000.210.170.00.00 partidaren bidez.

2017ko azaroaren 13ko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Argindegia-Elorbe-Izaskun eta Emeterio Arrese 8 atzealdea-Leaburu seinaleztatzea eta Protec enpresaren aurrekontua onartzea guztira 526,35 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne.

BIGARRENA: Kontuhartzaitzak zenbateko hori 1.0000. 210.170.00.00 2017 partidaren bitartez ordaintzea faktura iristen denean.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri eman Kontuhartzaitza sailari

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Protec enpresari ematea (E).



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

HIRUGARRENA:

3.-2017KO AZAROAREN 15EAN BURUTURIKO KULTURA ETA GAZTERIA BATZORDEAREN IRIZPENEN INGURUKO ERABAKIAK

3.1 KULTUR ETXEKO ARETO NAGUSIAREN BERRIZTAPENA

Kontuan hartuta Ibarra kultur etxeako areto nagusiko argiztapen eszenikoak, soinu-instalazioak, proiektzio-instalazioak eta eskenatokiko oihalek hogeitun urte dituztela eta zaharkituta geratu direla, kultura eta gazteria batzordeak horiek berriztatzeko hiru aurrekontu eskatu ditu:

ENPRESA	EUROAK (BEZ BARNE)
BENGOA AUDIOVISUALES	Ez aurkeztea erabaki du
ABS	29.999,44 €
DARDARAK S.L.	27.005,41 €

Kontuan hartuta bi aurrekontuen artean merkeena Dardarak S.L. enpresarena dela, guztira 27.005,41 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne.

Kontuan hartuta bi enpresek eskaintzen duten instalazioaren eta ekipoen bermea eta asistentzia teknikoaren zerbitzuaren artean onuragarriena Dardarak S.L. enpresarena dela, guztira lau urteko bermea eta horietan urtero prebentziozko ikuskaritza eskaintzen duela.

Kontuan hartuta Ibarra Udalak zenbateko hori 1.0000.622.333.00.00 2017 kontu-sailetik finantzatu dezakeela.

2017ko azaroaren 15ko Kultura eta Gazteria Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENEA: Onartzea Dardarak S.L. enpresaren aurrekontua, guztira 27.005,41 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA: Gastua 1.0000.622.333.00.00 2017 "Kultur etxeko berritze lanak" kontu-sailari egoztea.

HIRUGARRENA: Erabakiaren berri ABS eta DARDARAK S.L. enpresei ematea.

LAUGARRENA: Erabakiaren berri Kontuhartzaitzari ematea.

LAUGARRENA

4.- GALDERA ETA ESKAERAK

4.1. GIZARTE POLITIKAK ETA POLITIKA FEMINISTA ETA ANIZTASUNA BATZORDEEN BILERA 2017-11-14

Gizarte Politikak eta Politika Feminista eta Aniztasuna batzordea 2017ko azaroaren 14an egin zen. Bertan gai bat jorratu zen: jubilatuen tabernaren esleipena. Lehiaketan parte hartzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa ez da guztiz aurkeztu eta gutxieneko euskara eskakizuna betetzen duen edo ez aztertze dago.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzordeak esleipen hau beharrezko betekizun guztiak bete arte bertan behera uztea egokiena dela irizten du.

Bestalde Idazkariak jakinarazten du deialdian ez dela puntu hau sartu Gizarte Politikako teknikariak ez duelako inongo jakinarazpenik egin Gobernu Batzordean gairen bat jorratu behar zen edo ez.

Alkateak eta zinegotziek adierazten dute Gizarte Politikako teknikariari jakinarazi behar zaiola jarrera hau ez dela onargarria eta Gobernu Batzordeko deialdirako bere eginbeharra dela gaiak dauden edo ez idazkariari jakinaraztea. Ez dela onartuko herritarrei kalte egitea (garaiz erabakiak ez direlako hartu, teknikariak bere eginbeharrak ez dituelako bete) udal langileen utzikeria bategatik.

Eta eguneko gai-zerrendan aztertu beharreko beste gairik ez zegoenez, batzordeburu jaunak egintza amaitutzat eman zuen goizeko hamaikak eta hogeita hamar direnean, eta nik, idazkari naizen honetan, horixe egiaztatu nahi dut